

Gipuzkoako nekazaritza eta abeltzaintzaren bilakaera Aro Berrian

Egilea: Telmo Lazkano Muga
Gradua: Historia, 4. maila
Tutorea: Alvaro Aragon Ruano
Ikerketa arloa: Aro Berria
Gradu Amaierako Lana
2016/06/06

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	4
2. EUSKAL LANDAREN EGITURAKETA	5
3. BASOAK SOILTZEN, BURDINA ETA ITASONTZIAK EKOIZTEKO	6
4. XV. MENDEA: GIPUZKOAKO NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZTA ARO BERRIAREN ATARIAN.....	7
5. XVI. MENDEA: HEDAKUNTZA ETA ZAILTASUN GARAIA, ARTOAREN INBERTSIOA EMAN ZEDIN BEHARREZKO INFLEXIO PUNTUA	9
6. XVII. MENDEA: ARTOAREN EZARTZEA	12
7. ARTOAK ERAGIN ZUZENA IZAN ZUEN ABELTZAINTZAN	15
8. XVIII. MENDEA	19
9. ONDORIOAK	24
10. BIBLIOGRAFIA	27

Laburpena

Euskal landa lurraldea, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabara mugatzen badugu, txikia eta heterogeneoa dela esan dezakegu. Hiru zati bereizten dira bakoitzaren ezaugarriak kontutan hartzen baditugu: batetik, Iparralde hezea, 0-400m inguruan dauden lurrak; bestetik, zentral kontinentala 400-800m inguruan egokitutakoak; eta azkenik, hegoaldekoa mediterranearra Kantabriako Mendietatik hegoalderantz, Ebro ibaira arte. Hori dela eta, bilakaera desberdina izango dituzte lurraldeak historian zehar. Hurrengo lerroetan ordea, Gipuzkoako Aro Berrian izandako bilakaeran zentratuko gara nahiz eta besteak ere aipatuko diren.

XV. mendean, batetik, Europako ardatz ekonomikoa Mediterraneoan egotetik, iparraldera igaro zen; bestetik, 1492an Amerikaren aurkikuntza eman zen. Euskal lurraldeak “kapital posizio” paregabea eskuratu zuten horrela, izan ere, Gaztela (potentzia nagusi bihurtzear zegoen erreinua) eta iparraldeko merkatuen artean kokatuta zegoen, garraiolari herri bihurtu zen. Faktore hauek direla eta, ontziola sektorea asko garatu zen Gipuzkoan eta honek siderurgiaren hazkundera eta basoaren atzerapen bat ekarri zuen. Nekazaritzari dagokionez, nekazari jabetunak ziren gehiengoa XV. mende bukaeran, XVI. mendera igaro bitartean maizter bihurtzen joan zirelarik. Sektore honen hazkundera era estentsiboan eman zen, lur komunalak okupatuz. Abeltzaintza, nahiz eta indar handia zuen sektorea izan, bere esparrua mugatua izan zen, basoaren babeserako ateratako legeak eta nekazaritzaren hazkundera zela eta.

XVI. mendean, abeltzaintzaren lurrak murrizten jarraitu zuten, baita fruta arbola tradizionalenak, horien ordeztu produktibitate handiagokoak ziren zerealak ezarri baitziren, nolabait handitzen zihoan eskariari erantzuteko helburuaz (biztanleria hazkundera zegoen). Mende bukaeran zailtasun garaiak izan ziren, izan ere, Hotzaldi Txikiak uzta kopuru handiak txikitu zituen. Ez zen krisirik eman ordea, birmoldaketa bat baizik, tokian tokiko lan banaketa eta espezializazioa ekarri zuena. Birmoldaketa horretan ulertu behar dugu, artoaren sarrera. Artoa, ezinbestekoa izan zen XVI. mendea geroztik bizi izan zen inflexio puntutik hazkunde joera batek jarraitu ahal ziezaion, izan ere, produktibitatea igo zuen nabarmen eta errotazio berriak, lugorria saihestea eta behi-azienden ukuiluratzea ahalbidetu zuen. Ondorioz, XVII. mendea hazkunde garai bat izan zen.

XVIII. mendean, artoak ekarritako ondorioak ikusiko dira, hau da, ukuiluratutako animalien orokortzea artoa dagoen tokian. Bestalde, fisiokrazia frantsesaren eragina ere nabariko da garaiko zailtasunei aurre egiterako orduan.

Hitz gakoak: *Hotzaldi txikia, nekazaritza, abeltzaintza, artoa, garia, behi-azienda, ardi azienda.*

1. SARRERA

Aro Berrian aldaketa garrantzitsuak eman ziren Gipuzkoako landa gunean. Bai nekazaritzak zein abeltzaintzak mendebaldeko Europan bizi ziren aldaketa berriei egokitzen jakin izan zuten, zailtasun garaiak gaindituz eta Gipuzkoako ekonomian ongi finkatuz, XVIII. mende bukaeratik eta XIX. mendean zehar lurralde honetako sektore nagusia bihurtuko direlarik. Lan honen helburua, moldaketa horretan funtsezko papera izan zuen artoaren agerraldiak abeltzaintzarekin izan zuen lotura azaltzea da, hau da, artoaren etorrerak behi-azienden ukuiluratzea ekarri zuela demostratzea. Bestalde, urteetan zehar uste izan eta zabaldu diren gai batzuekiko baieztapenei bestelako ikuspegi bat emango da, gaur egungo azken ikerketak iturri oinarri izanik. Horretarako, lanaren lehenengo zatian euskal landaren egituraketa eta landarekin lotutako ekonomia ikusiko da, beharrezkoa baita artoa etorri baino lehenagoko garaiaren izaera eta oinarria ulertzeko eta bide batez, artoaren etorrera ahalbidetu zuten faktore klabeak ikusteko. Bigarren zatian, berriz, artoaren etorrera eta ezarpena azalduko da, behi-azienden ukuiluratzearen erlazioa azalduz. XVIII. mendeko euskal landaren egoerarekin amaituko da ikerketa, bertan aurretik izandako bilakaeraren ondorioa ikusiko baita.

Lan hau burutzeko, Gipuzkoako landa lurraldearen bilakaerari buruzko lan garrantzitsuren irakurketa egin da eta iturri dokumentalak begiratu dira, argitaratu ez diren datu esanguratsuak aurkitu nahian. Ez dira asko arlo hau ikerketa gai duten adituak. Gure lurretan gutxi gorabehera 70. hamarkadan piztu zen gaiarekiko jakinmina, izan ere, Penintsulara marxismo britainiarraren eragina iristen ari zenean. Historia ekonomikoaren korrante honetan kokatu behar dugu dudarik gabe klasikoa den Bilbao eta Fernandez de Pinedoren “La producción agrícola en el País Vasco peninsular. 1537-1850. Tendencia general y contrastes comarcales. Una aproximación” obra. Lan honetan argi uzten dute hainbat ikuspuntu gai honi buruz: batetik, artoaren sarrerak eragindako abeltzaintzaren murriztea defendatzen dute¹; bestetik, itsas industriak izandako krisi estrukturala hartzen dute artoan inbertitzearen kausa nagusitzat²; eta

¹BILBAO BILBAO, L. M. - FERNANDEZ DE PINEDO, E., “La producción agrícola en el País Vasco peninsular. 1537-1850. Tendencia general y contrastes comarcales. Una aproximación”, in *Cuadernos de Sección Historia- Geografía*, 2, 1984, 121.or.

²*Ibidem*, 113.or.

azkenik, artoaren sarrerek sagastien jaitsiera orokor bat eragin zuela adierazten dute³. Lan honetan zehar baieztapen horien inguruko bestelako ikuspegi bat luzatuko da, esandako hipotesia azaltzearekin batera.

Bestalde, esan behar da, nolabait gai honi buruzko hutsune bat egon dela geroztik ikerketa akademikoaren munduan, lan garrantzitsurik publikatu ez delarik. Azken urteotan, ordea, berreskuratu egin da euskal landaren ikerketa, baina historia ekonomikotik ez diren ikuspuntu berrietatik landuaz, nahiz eta bakar bat ere egon ekonomiaren ildokoa, Lanza Garciaren kasu. Batetik, gaur egun ekologiak eta klimak gizartean duen garrantziaren testuinguruko haria jarraiki hainbat adituk ikuspuntu horretatik burutuko dituzte gai honi buruzko ikerketa desberdinak, Alvaro Aragon Ruanoren kasu. Bestetik, XXI. mendeko soziologia eta antropologiaren eragina ere nabaria da, giza historiari bultzada emango diolarik honek, José Ramón Díaz de Duranak ikuspuntu horretatik egiten duelarik historia. Historia kontzeptualak ere garrantzia hartu du gure mende berri honen hasieran eta Astigarraga Goenagak bide horretatik ekingo dio ikerketei, hau da, gizartearen eragina aipatuz. Lan hau era berean ulertu behar da, hau da, azken urteotan berreskuratua izan den ikerketa gai honi laguntza gisa.

2. EUSKAL LANDAREN EGITURAKETA

Gaiarekin hasteko, esan, Euskal landa lurraldea, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabara mugatzen badugu, txikia baina anitza dela. Hiru zati bereiztera iritsi dezakegu landa eremuari dagokionez, beren ezaugarriak irizpide izanik: a) Iparralde hezea, b) zentral kontinental eta c) hegoaldekoa mediterranearra⁴.

A zonaldea, itsas mailan hasi eta 400 metrotako altuera arte dauden lurraldeak hartzen ditu, hau da, Gipuzkoa, Bizkaia, eta Arabako Ayala eta Aramayo bailarak arte. Jakinak diren ezaugarri ekologikoek (hezetasun handia) eta orografiakoek (irregularra oso), nekazaritza produkzio pobre batera mugatzen du espazioa batetik, eta bestetik, Aro Berrian ezinbestekoak ziren zereal garrantzitsuen ustiatzea zailtzen zuten, gariaren kasu, hezetasun asko gordetzen baitu. Bazka lur eta basoentzako ordea aproposa da, arrazoi berdinentatik. Aipatzekoa da baita ere, sagasti, intxaurrondo eta gaztainondoen gune aproposa dela.

³BILBAO BILBAO, L. M. - FERNANDEZ DE PINEDO, E., Op.cit., 129.or.

⁴*Ibidem*, 97.or.

B zonaldeari dagokionez, 400m eta 800m bitartean dauden lurraldeak hartuko ditu gutxi gorabehera, hots, Iparraldeko Zonalde Hezea amaitu eta Kantabriako Mendien inguruak hartzen ditu bere baitan. Inguru honetan, batetik, lurraren konposaketa aldatzen da silize-buztintsuagoa bihurtzen baita, eta bestetik klima kontinentaleko trantsizioa ematen da, lurraldea erregularragoa bihurtzen delarik. Uztak handiagoak dira eta kalitate hobegokoak klima dela eta, eta aurreko zonaldea ez bezala, buruaskitasuna bermatuta dute, Arabako lautada bereizten delarik bere produktibitate altua dela eta. Hala ere, esan beharra dago Arabak hainbat inportazio ere egiten zituela, adibidez, ardoa (baita arabar Errioxatik), gatza eta garia Nafarroatik ekartzen zuten hainbatetan, beharra baino gehiago, askotan merkeago zelako⁵.

Azkenik, C zonaldea, arabar Errioxari dagokio, Kantabriako Mendietatik hegoalderantz, Ebro ibaira arte. Bertako orografia eta klimak, trilogia mediterraneanra lantzeko aukera ematen du, nahiz eta, gune hau ardoaren inguruan izango den esplotatua, horren froga da, XVI. mendearen lehen erdialderako, Gasteiz eta Agurainek arabar Errioxako ardoa kontsumitzen zutela gehienbat⁶.

3. BASOAK SOILTZEN, BURDINA ETA ITASONTZIAK EKOIZTEKO

Orokorrean hainbat ezaugarri azpimarragarriak dituzte gorago aipatuak izan diren zonaldeak. Hiru lurraldeak duten “posizio kapitala” aipatzekoa da, hau da, gune estrategikoan daude; izan ere, jakina den bezala Gaztela (Aro Berrian dudarik gabe potentzia bat zena) eta Ipar Atlantikoaren (Europako ardatz ekonomiko berria zegoen toki) artean kokatuta zegoen. Honek, euskal gizartean garraiolari lanek hasieran eta merkataritza erlazioek ondoren, indar handia izatea ekarri zuen. Jarduera horiek burutzeko, beharrezkoa zen ontziola eta siderurgia indartsua izatea noski. Biek, bai burdinolek (erregai gisa) zein ontziolak (ontzien eraikitzean), beharrezkoa zuten egurra, hau da, basoaren ustiakuntza handi bat. A zonaldearen ezaugarriek behar horiei erantzuten zien, bertako bazka eta baso zein ibai arroek, sektore horiek garatzeko aproposa ziren baldintzak eskaintzen baitzituen⁷.

⁵GARCÍA FERNÁNDEZ, E., “Viñedo y vino en Álava durante la edad media”, in Beatriz Aizaga, Dolores Mariño, Carmen Díez, Esther Peña, Jesús Ángel Solórzano, Susana Guijarro, Javier Añibarro (eds.), *Mundos medievales. Espacios, sociedades y poder*, Universidad de Cantabria, Santander, 2012, 1358.or.

⁶*Ibidem*, 1363.or.

⁷BILBAO BILBAO, L. M. - FERNANDEZ DE PINEDO, E., Op. cit., 104.or.

Aipatutako faktoreak eta garaiko gertakari hainbat zirela eta, 1492ko Amerikaren aurkikuntzaren kasu, Itsasoko ekonomiak garrantzia handia hartzea ekarri zuen, eta honek nola ez kostaldeko lurraldeena, Gipuzkoarena kasu. XV. mendean, ekonomia hazkundera ematen da Gipuzkoan. Hori ondoriozta daiteke, batetik, basoaren atzerapen bat ematen baita nekazaritzaren zein abeltzaintzaren garapena zela eta; bestetik, biztanleria hazkundera eman zenez⁸, produktu manufakturatuen eskaria hasi zen baita ere, eta honek, industria eta merkataritza jarduerak bultzatu zituen. Siderurgia sektoreak hazkunde handia izan zuen, izan ere, XV. mendean zehar burdinolak orokortu ziren, geroz eta produktibitate altuagokoa eta errentagarriagoak zirelarik (erregai gehiago behar zuten ordea, deforestazio arazoa handiagotzen zuen zerbait), XVI. mende erdialderaino iraungo duelarik aldi oparo honek⁹. Hazkunde honen atzean, Errege Katolikoek garaian, eta gehienbat Amerikaren aurkikuntzaren ostean, ontziolen lotutako sektoreak izandako hazkunderarekin lotu behar da, begi bistakoa diren arazoengatik. Ez da ordea harrizkoa Gipuzkoan garatu izana industria mota hau, izan ere, hori eman zedin baliabideak aski zituen ikusi dugun klimatologia eta morfologiarengatik, hau da, baso ugari egur ikatzarentzat eta ibai arro anitz, ur indarra eskaintzen zituztenak, beharrezkoa zen meaz gain.

4. XV. MENDEA: GIPUZKOAKO NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZTA ARO BERRIAREN ATARIAN

Nekazaritzari dagokionez, nekazari jabedunak ziren gehiengoa XV. mende bukaeran, XVI. mendea igarotzen zen bitartean maizter bihurtzen joango dira¹⁰. Sektore honen hazkundera era estentsiboan eman zen, lur komunalak okupatuz. Kapital gutxi izatea, lur sail txikiak, familiakoa zen esku lana eta produkzio txikiak ziren nekazaritza horren ezaugarri nagusiak¹¹. Trilogia mediterranean ez zen aproposa Gipuzkoarako, bertako geografia eta klima zirela eta, beraz, garai hartako Gipuzkoako landa lurretan, ohikoak bestelako landagaiak ziren garia izanik nagusi: artatxikia (gero artoaz

⁸DIAZ DE DURANA, J.R., “El mundo rural guipuzcoano a final de la Edad Media: progreso agrícola y explotación de la tierra”, in *En la España Medieval*, 21, 1998, 71.or.

⁹DIEZ DE SALAZAR, L. M., “La industria del hierro en Guipúzcoa (siglos XIII-XVI) Aportación al estudio de la industria urbana”, in *En la España Medieval*, 6, 1985, 260.or.

¹⁰DIAZ DE DURANA, J.R., *Op.cit.*, 69.or.

¹¹ARAGON RUANO, A., “El sector agrario Guipuzcoano en la encrucijada de los siglos XVI y XVII”, in *Lurralde*, 38, 2015, 91.or.

ordezkatua izango dena hein handi batean), oloa, garagarra, sagardoa, sagarra, barazkiak...¹².

Honekin batera, haragia ere ohikoa zen Gipuzkoan, izan ere, ia XV. mende erdialdera arte, abeltzaintza izan zen jarduera nagusia Gipuzkoako ekonomian. Nekazaritzan ez bezala, jabetza gehiengo tokian-tokiko oligarkia, landa jaun eta instituzio eklesiastikoen eskuetan zegoen. Hala ere ardietan esan daiteke hasiera batean, gehiengo nekazarien jabegoan zegoela, baina hauek ere denbora pasa ahala, maizter bihurtuko dira. Artaldean kopurua XV. mendean igotzen hasiko da, izan ere, maizter hauek ardiekiko lehentasuna izango dute: batetik, ardiak erostea errazago izango zelako beraiantzat, eta bestetik, dinamikoagoa, merkeagoa, eta errazagoa zelako erabiltzen, eta artile, haragi, gazta, esne, gurin, e.a. eskaerei erantzuteko gaitasuna zuelako; hori dela eta XVI. mendearen bukaerako Gipuzkoako leku askotan artaldeak behitaldeak baino kopurutsuagoak izango ziren, batik bat probintziaren ekialdean.

Abeltzaintza, bestalde, trasterminantzian oinarritzen zen (transhumantziara XVIII. mendean igaroko da), lur komunaletan egiten zuen bazka normalean¹³. Baina abeltzaintzarenaz gain, aipatutako beste jarduera ekonomikoek izandako hazkundeak (ontziolak, siderurgia, nekazaritza...) basoaren ustiakuntza arriskuan jarri zuen, abeltzaintzak muga batzuetara moldatu behar izan zuelarik (*Ordenanza de Pastos* 1457), bere produkzioa murriztuko zuena. Produkzio murrizketa honek, beharra asetzeko adinako produkzioa ez egotea ekarri zuen, eta beraz, abelburuak inportatzen hasi ziren Frantzia, Nafarroa edota Gaztelatik¹⁴.

Inportatu behar honek XIV. mendetik zetorren joera bat handitu zuen, hau da, espekulazioa eta kontrabandoa, eta agian gabezia, gaitasun ezatik baino espekulaziotik gehiago datorrela pentsa daiteke. Lehenengo sektoreko defizitak nolabait bigarren eta hirugarren sektoreak indartzea eragin zuen. Burdinaren produkzioak eta ehunaren esportazioen bueltako bidaiak, defizita zuten lehen mailako produktuak ekartzea ahalbidetu zuten (burdina esportatu eta bueltan, abelburuak eta jakiak (zerealak) ekartzen ziren). Merkataritza honek, legislazio foral eta Koroaren babesaren zuzen zuzena. Hau, espekulazio ugariaren kausa izan zen, ordea, partikular askoren onurentzako, izan ere,

¹²BILBAO BILBAO, L. M. - FERNANDEZ DE PINEDO, E., Op.cit., 98.or.

¹³ARAGON RUANO, A., "El sector agrario...op.cit., 92.or.

¹⁴ARAGON RUANO, A., "Ganadería, transterminancia y trashumancia en los territorios vascos en el tránsito del medioevo a la modernidad (siglos XV y XVI)", in *Cuadernos de Historia Moderna*, 31, 2006, 45.or.

beharrezkoak ziren baina abelburu gehiagoren eskaera egiten zen, ondoren horrekin espekulatzeko eta beste lurraldeetan saltzeko¹⁵.

Guzti honek “prezioen iraultza” deiturikoarekin egin zuen bat, espekulazioa areagotu zuen zerbait. Iraultza honek ekonomia moralaren indartzea ekarri zuen euskal lurretan (jakien prezioak tasatuta zeuden): Tasazio horrek ez zien inbertitzaileei nahi adina errentagarritasuna ematen eta horregatik, ale asko kanpora ateratzen hasiko dira, kontrabandoaren bidez. Kanpora ateratako leku haietan ere tasatua zeuden salneurriak, baina kasu askotan Gipuzkoan baino garestiagoak, hortik ateratzen zituztelarik onurak; gainera, urritasuna zegoenean jendea prest zegoen eskatzen zitzaizkien prezioak ordaintzeko. Horregatik normalean, espekulazioa eskasia garaian nabarmentzen zen. Abeltzaintzaren produktu deribatuaren merkatuan egindako espekulazio basati horrek guztiak (artilea, larru edo gaztarena) garrantzia handia izan zuen XV-XVIII. mendeetan emango den abeltzaintzaren aldaketan, hau da, behi-abeltzaintza estentsibo batetik, ardi-abeltzaintza batera pasatzerakoan; behiek utzitako lekua artaldeek hartuko dute, ardi zaintza estentsiboa orokortuz¹⁶.

5. XVI. MENDEA: HEDAKUNTZA ETA ZAILTASUN GARAIA, ARTOAREN INBERTSIOA EMAN ZEDIN BEHARREZKO INFLEXIO PUNTUA

XVI. mendean, B zonaldean eta C zonaldean hazkundera eman zen nekazaritzari dagokionean, A zonaldean, berriz, nahiz eta hedakuntzaz ere hitz egin daitekeen, ezin da neurri berean egin, zailtasun garaia izan baitzituen nahiz eta ondoren artoarekin aurrera egiten jarraituko duen.

Zonalde zentral kontinentalean, ale eta lekadun produktuak %25 igo ziren (garia %20 eta besteak %34 inguru), soberakinak sortzen zituztelarik, horiekin alboko lurraldeak hornituz¹⁷. Garai honetan ere, XV. mende bukaeratik, C zonaldearen espezializazioa hasiko da ardoaren inguruan, Arabako lautadan ardoa ereitea utzi izanak ekarritako eskaria handiagotzeak bultzatuta¹⁸. Datu bat ematearren, 1537-1541 bitartean, errenta globalaren balorearen %63a zerealak ziren. 1588-1592 urteen bitartean, berriz, jada

¹⁵ ARAGON RUANO, A., “La evolución de la economía guipuzcoana en tiempos de Urdaneta un período de desarrollo y expansión entre supuestas crisis”, in TRUCHUELO GARCIA, S.: *Andres de Urdaneta, un hombre moderno*, Ordiziako Udala, Ordizia, 2008, 130.or.

¹⁶ *Ibidem*, 131.or.

¹⁷ BILBAO BILBAO, L. M. - FERNANDEZ DE PINEDO, E., Op.cit., 107.or.

¹⁸ GARCÍA FERNÁNDEZ, E., Op.cit., 1356.or.

%58ra jaitsia zen datu hori, mahastiak joango direlarik hartzen indarra, azken epealdi horretan, errenta globalaren balorearen %42a baitzen¹⁹.

A zonaldean, berriz, zailtasunak izan zituen hazkunde garai batez hitz egin behar da. Hazkunde horretan, indar handiagoa izan zuten bigarren mailako espezieak gariak baino. Biztanleria hazkundeak larriagotu egin zuen buruaskitasun falta hori²⁰. Dietari dagokionez, zerealetan gehiago oinarritzen hasi zen, hasieran aipatu diren beste sektoreen hazkundeak eta nekazaritza estentsiboak, abeltzaintzaren jaitsiera ekarri baitzuten, bazka lurak murriztu zituelarik horrek. Fruta arbola tradizionalen lurak ere murrizten joan ziren, horien ordeztu produktibitate handiagokoak ziren zerealak ezarri baitziren, nolabait handitzen zihoan eskariari erantzuteko helburuaz (hori izan zelarik produktibitatea handiagotzeko hartu zen neurri bakarrenetakoa, padurak zeuden tokitan eraikitako kanalen kasu (Zarautzen adibidez)²¹). Beraz, sistema estentsibo batez erantzun nahi izan zitzaion biztanleria hazkundeari. Merkataritzak eta manufakturetako sektoreek, gabezia hori konpentsatzen saiatu ziren inportazioekin.

Hala ere, berezko produkzio gabezia gutxi balitz, 1560-1610 bitartean, Gipuzkoak, negu latzak igaro zituen. Eurite eta elurte oso gogorrek uzten galtzea ekarri zuten. Urola erdi eta behean (Azpeitia, Errezil, Zestoa, Aia, Zumaia, Getaria eta Zarautz) neguen zigorrez gain, gaixotasunak ere eman ziren, “gorria” eta “galpiper” izenez ezagututakoak. Errentak ordea ez ziren malgutzen, eta egoera hori izanik uzta edota diruz ordaintzea ia ezinezkoa zenez, sarritan, abereekin ordaindu behar izan zen. Horrela, hauen jabetza galtzen zen, abeltzaintza sektorearen kalterako. Beste askok, ordea, errentak ordaindu ezinaren aurrean, maiztertzan zituzten baserriak utzi eta beste batzuetara edota beste lanetan arituko dira, denborarekin utzitako baserri hauek amildu egingo direlarik. Egoera honen aurrean, beraz, nekazari exodo bat eman zen²².

1565-71 bitartean, baserrietan konponketa lan faltak argiak ziren jada, izan ere, esan bezala exodoa zela eta, batetik, baserri asko eroriak edo utziak izan ziren eta bestetik, errenten beherapen handi bat eman zen, hau da, ugazaben sarrerak murriztu ziren nabarmen. Honek guztiak, Gipuzkoako nekazaritzaren eraberritze bat eman zen

¹⁹ BILBAO BILBAO, L. M. - FERNANDEZ DE PINEDO, E., Op.cit., 109.or.

²⁰ *Ibidem*, 106.or.

²¹ ARAGON RUANO, A., “El sector agrario... op.cit., 93.or.

²² ARAGON RUANO, A., “Transformaciones agropecuarias en Guipúzcoa durante los siglos XVI y XVII”, in María José Pérez Álvarez, Laureano M. Rubio Pérez, Alfredo Martín García (ed.), *Campo y campesinos en la España Moderna. Culturas políticas en el mundo hispano*, Fundación Española de Historia Moderna, Madril, 2012, 444.or.

ordura arteko dinamika aldatzea ekarri baitzuen, ugazaben interakzioa ezinbestekoa bihurtu zelarik.

Esku hartze hau, askotan, emakumeen partetik izan zen, izan ere, maiorazkoa dela eta jaunen alabak merkatari aberatsekin ezkontzen ziren, horrela familiaren handitasuna mantentzen laguntzeko, eta kasu honetan, baserrien negozioan inbertitzeko likidezia izateko, Barbara de Beinaren-en kasu edota Zarautzeko Lopeztarrena²³. Ezinbestean, ugazabek, etxeak konpontzeko diru asko gastatzera behartuak izan ziren batetik, eta bestetik, ordura arteko maizterren kontratuak aldatu zituzten, askoz ere malguagoak bihurtuz, maizterrak berriz ere erakartzeko helburuaz. Sei urteko kontratuak hasi ziren egiten kondizio hobegotan: Lehenengo bi urtetan ez zuten errentarik kobratuko, eta hurrengo lau urtetan uztaren laurdena soilik kobratuko zen. Gainera, abereak erosi ziren, krisiarekin galdu ziren tokietan berrezartzeko, eta ameterian kudeatu. Nahiz eta guzti hau egin, 1571n oraindik arazoak zeuden maizterrak aurkitzeko. 1572an berriz ere, txingor ekaitz gogorak izan ziren, zeinek aipatutako neurriak ez uztera behartu zuten²⁴.

Hotzaldi Txikiak ezagutzen den aipatutako aldaketa klimatikoak, nekazaritzan eragin negatiboa izateaz gain, abeltzaintzan ere eragin handia izan zuen, ardi asko hil baitziren bai hotzarengatik baita basapiztiak altuera txikiagotara jaistea ekarri zuelako, goi altitudeetan zegoen hotza zela eta. Ugazabek zituzten arazoak larriagotu zuen horrek. Honek, lehen aipatutako ordura arteko dinamika aldatzearen beharra areagotu zuen: lehen, artatxikia, garia edo sagastiak ereiten ziren tokian, Amerikatik ekarritako produktua ereitea ekarri zuen. Artoa izan zen Ameriketatik ekarritako produktu hura, XVII. mendean iraultza ekarriko duena bere produktibitate handiarengatik²⁵. 1630tik aurrera orokortu zen ikusiko dugun bezala, nekazaritza arazoari irtenbidea emanaz. XVII eta XVIII. mendetan esportatu eta espekulatzeko gaitasuna izatera helduko da, horrela biztanleria hazkundera asetzea lortuz.

²³ ARAGON RUANO, A., "El sector agrario... op.cit., 97-98.or.

²⁴ ARAGON RUANO, A., "Transformaciones agropecuarias... op.cit., 444.or.

²⁵ ARAGON RUANO, A., "La evolución de la economía guipuzcoana...op.cit., 140.or.

6. XVII. MENDEA: ARTOAREN EZARTZEA

Hegoalde mediterranean, XV. mendetik datorren mahastien espezializazioa²⁶ areagotu egingo da 1620-1680 bitartean. Hazkunde honen zergatia ulertzeko, esan behar da autokontsumoko merkatuaz aparte, Gaztelako biztanleria hazkundera eman zela, honek eskaria handituko duelarik²⁷.

B zonaldea, aldiz, nekazaritzaren ekoizpenak geldialdi bat izan zuen. Nabarmenak 1680-1720 bitarteko hamarkadak izan ziren. Gariak beherakada izan zuen kontsumoaren beherakada eman zelako, izan ere, euren kontsumitzaile nagusietakoa zen Gasteiz, ez zuen lehengo kontsumo ahalmena, euskal ekonomiak garai honetan izan zuen aldaketa baten ondorioz, garraiolari izatetik, merkataritza izatera igaroz eta beraz, Gasteizek zuen lotune garrantzia hori galdu zuela dio Pinedok²⁸. Baieztapen hau gutxienez zalantzakorra da, izan ere, bestelako merkatuak aurkituko zituztela pentsatu daiteke. Horren adibide dugu, XVII. mendean Moran (Toledo) merkataritza jarduerak egiten zituzten Gasteiztar biren kasua, Francisco Velázquez de la Cuesta eta Juan de Amezaga, Gipuzkoako burdinarekin negozioak egiten zituztelarik²⁹. Horrenbestez, zalantzan jarri beharreko baieztapen bat da, izan ere, bestelako merkatuen existentzia ere bazeuden ikusi denaren legez. Hala ere, informazio gutxi duen gaia da, etorkizunean sakondu beharrekoa.

Bilbao eta Fernandez de Pinedoren ustez, itsas industriak izandako krisi estrukturala izan zen artoan inbertitzearen kausa nagusia³⁰. Ekonomian gertatu zena, ez zen krisi estruktural bat izan ordea, baizik eta birmoldaketa bat egoera berrira³¹. Ez ziren krisian sartu bigarren eta hirugarren sektoreak, ez eta zerealen prezioen jaitsierarik eman³². Nahiz eta egia den zailtasun garaiak egon zirela, hauek inflexio puntu gisa ulertu behar dira, dinamika berri bati atea ireki ziolarik. Gipuzkoako inbertitzaileek dibertsifikazioaren bidez euren inbertsioen arriskua murrizten ikasi zuten, hori dela eta, ohikoa da pertsona berdin batek, administrazio karguetan, ontzioletan, lur jabetzetan...

²⁶GARCÍA FERNÁNDEZ, E., Op.cit., 1364.or.

²⁷BILBAO BILBAO, L. M. - FERNANDEZ DE PINEDO, E., Op.cit, 129.or .

²⁸*Ibidem*, 132.or.

²⁹RODRÍGUEZ DE GRACIA, H., “Relaciones comerciales en el siglo XVII: Hierro guipuzcoano, cerrajería de Mora (Toledo) y seda toledana”, in *Boletín de la Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, LVIII, 2002, 13.or.

³⁰BILBAO BILBAO, L. M. - FERNANDEZ DE PINEDO, E., Op.cit, 113.or.

³¹ARAGÓN RUANO, A., “Transformaciones económicas en el sector costero guipuzcoano central durante el siglo XVII”, in *Manuscrits: Revista d'història moderna*, 26, 2008, 231.or.

³²ARAGON RUANO, A., “El sector agrario Guipuzcoano...op.cit., 107.or.

interesak izatea. Sektore batean dena inbertitu beharrean, gauza desberdinetan inbertitzen zen, horrela bat gaizki zihoanean bertatik kapitala kendu eta momentu oparoagoa bizi zuen beste batean inbertitzen zen. Bertan lortutako onurekin, beste sektorea errekuperatzean berriz ere bertan inbertitzea izango zutelarik, arriskuak murriztuz³³.

Horrela ulertzen da, adibidez, arrantza sektorean, bale ehiza tradizionalan egondako zailtasunen aurrean, moldaketa bat egotea eta baxurako arrantza jarduera gogotsu batekin konpentsatu izana zailtasun horiek, hau da, egoera berrira moldatzea. Horretarako, ontziolaren espezializazio bat eman zen ontzi laguntzaile eta kabotajeari dagokionez hainbat tokitan. Honela, lanaren zatiketa eta espezializazio geografiko bat eman zen, Pasaian armadarako eta merkantzia flotarako beharrezkoak ziren barku handiak eraikitzen ziren bitartean, Zumaian baxurako arrantzarako eta kostaldeko merkataritza txikian beharrezkoak ziren ontzi txikietan espezializatu zen, oso garrantzitsuak izan zirenak 1635 urte inguruan Espainia eta Frantziaren arteko gerran, kostaldeak jaso zuen blokeoa zela eta³⁴.

Ez zen krisirik eman, beraz, birmoldaketa bat baizik eta tokian tokiko lan banaketa eta espezializazioa. Horren ordez, aldaketaren kausa, lehenago aipatu diren XVI. mendeko iparralde hezeko egoera horiek izango lirateke (abeltzaintza errentagarriago baten beharra, klimak eragindako uzten galera handiak,...), inflexio puntu gisa ulertu beharrekoak, izan ere, ordura arteko dinamika aldatzera behartu zuen onerako, hau da, hazkunde baterako: egoera hori onurarik ez zuenez ez ugazaba ezta maizterrentzat, zerbait berria probatzera bultzatu zuen, artoan inbertitzea alegia, hots, produktibitate handiagoko eta hazkundera ekarriko duen Ameriketatik ekarritako zerealean.

1576an izan zen lehenengo aipamena Gipuzkoan artoari buruz, Arrasaten hain zuzen ere. XVII. mendean Gipuzkoan, artoari egindako erreferentziak gariaren adinakoak edo gehiago ziren. 1625rako Gipuzkoako kostaldean ohikoa zen artoa ustiatzea³⁵. Barnera joan ahala, beranduago ezartzen da: batetik, esan bezala kostaldetik zetorrelako artoa, eta bestetik, zenbat eta barrualderago joanez gero eta baldintza okerragoak aurkitzen ziren artoaren hazkuntzarako, mendietan altitudeagatik edota

³³ARAGON RUANO, A., "La evolución de la economía... op.cit., 139.or.

³⁴*Ibidem*, 140-141.or.

³⁵ARAGON RUANO, A., "Transformaciones agropecuarias... op.cit., 445.or.

lautadan klimarengatik. Artoaren sarrerak, produktibitate indizeak handitu zituen, aldaketa handiak ekarriz abereengan, izan ere, ustiakuntza estentsiboa utzi eta intentsiboa bultzatu zen, abereen ukuiluratzea alegia.

Bere ezarmenduaren azkartasunak edota geldotasuna azaltzen dituzten faktoreak argiak dira: lur errotazio sistema aurreratua zenak lurraren ereitea une oro ahalbidetzen zuen, beste produktu batzuk ordezkatu zituelarik horrela; bestetik, ez zuen teknologia berriaren beharrik, beraz alde horretatik inbertsio gutxiagoa behar zen, ondorioz, arrisku gutxikoa zen bere ustiaketan egin beharreko inbertsioa³⁶. Beste zerealekin konparatuz, artoa hektareako produktiboagoa zen eta errentagarriagoa zen hazi bakoitzeko. Gainera sasoikako produktua zen, beraz, aldi berean beste produktuak ereitea ahalbidetzen zuen. Krisiaren arriskua murriztu zen, neguko erreserbak bermatzen baitziren. Neguan zehar lantzen zen lurraren askatzea ahalbidetzen zuen, abereentzako utziz edota arbiarentzako (ondoren bazka artifizialetarako), horrela lugorria saihestuz. Azkenik, artoak babarrunak, dilistak edota kalabazen ustiatzea konbinatzea ahalbidetzen zuen, eguneroko dietan erabiliak zirenak baita txerri zein beste abereak elikatzeko³⁷. XVIII. menderako artoak garia hirukoiztu zuen ipar ekialdean, ez ordea ipar mendebaldean non gariak jarraitu zuen nagusi izaten³⁸.

Kostaldean, txakolina garatu zen, baina gutxi eta eskas, Mutrikuren salbuezpenearekin, euskal kostaldeko hornitzaile nagusia bilakatu baitzen, XVI. mendean zehar izandako espezializazioari esker. Bestetik, sagardoak zailtasunak pairatu zituen, izan ere, artoaren sarrerak, sagastien atzerakada ekarri zuen Pinedoren hitzetan: 1537-1775 bitartean %80 jaitsi ziren batez besteko sagastiak, 70 herrietan hartutako laginetan oinarrituz: Zenarruzan adibidez, 1642 eta 1775 urte bitarteetan %50 jaitsi ziren sagastiak³⁹. Gertaera hau, artoari atxikitzen dio, sagastiak artoarengatik ordezkatuak izan baitziren. Hala ere, Pinedok duen orokortzeko joera arriskutsua izaten da, eta kasu honetan ez da zilegi, izan ere, kostaldeko herrietan, Donostialdean kasu, iraun zuen indartsu, gehienbat Erret Armadaren, merkatari eta balezale ontzien eskaera zela eta, eta beraz, ez zen XVII. mendean ez ondoren atzerakadarik eman Gipuzkoako ipar

³⁶LANZA GARCÍA, R., “El crecimiento de la ganadería de Cantabria entre los siglos XVI y XIX: una temprana especialización regional”, in *Historia Agraria: Revista de agricultura e historia rural*, 23, 2001, 88.or.

³⁷ARAGON RUANO, A., “Transformaciones agropecuarias en Guipúzcoa... op.cit., 446.or.

³⁸ARAGON RUANO, A., “El sector agrario Guipuzcoano... op.cit., 106.or.

³⁹BILBAO BILBAO, L. M. - FERNÁNDEZ DE PINEDO, E., Op.cit., 129.or.

ekialdean⁴⁰. Gaztainondoak iraun zuten euren ekoizpenean nahiz eta zailtasunak eduki, izan ere, bere egurra oso estimatua izateaz gain, Atlantikoko herrien eskaera (fruitu lehor gisa) eta erregaia gisa jardutearen ondoriozko eskaerarekin aurrera jarraitzea lortu zuen batik bat⁴¹. Nolabait esan daiteke, merkatu lokalen arabera espezializazio bat eman zela Gipuzkoan.

Artoaren hazkunde handia eman zen XVII. mendearen lehen erdialdean, handiagoa izan zen ordea bigarren zatitik aurrera. Artatxikiari kendu zion gehienbat tokia. XVIII. mendetik aurrera, artoa garia baino gehiago lantzen zen, ordura arte gehien ereiten zen zereala zena alegia. Kosta eta Ekialdean artoa zen nagusi, Mendebaldean garia oraindik⁴². Banaketa honek, zer ikusia izango du ukuiluratze prozesuan jarraian ikusiko den moduan, artoaren zabaltzeak behi-azienden ukuiluratzea ahalbidetu baitzuen eta hori dela eta behiek goialdeak eta goiko larreak utzi eta, hortik aurrera, ardiek izan zuten haien utzitako larreak erabiltzeko parada. Kasu batzuetan, gainera, behiak ez ziren guztiz ukuiluratu, erdi bide bat hartu zuten, hau da ukuiluratu, batez ere neguan egingo zen, eta uda goiko larretan ematen zituzten. Prozesu hori nabariagoa da Gipuzkoako ekialdean mendebaldean baino, non behi-taldeak nagusi izango dira XVIII. mendera arte, zonalde horretan ikusi berri den artoaren garrantzia dela eta.

7. ARTOAK ERAGIN ZUZENA IZAN ZUEN ABELTZAINZAN

Artoaren sarrerak, nekazaritza eta abeltzaintza erlazioak aldatu zituen. Behi-azienden ukuiluratzea ekarri zuen, ardiak mendi goialdetan bazkatzen zutelarik. Produktzioa asko handitu zen oro har, herritarren beharrak bermatuz. Nahiz eta hazkunde honek artoa izan oinarri, gariak ere hazkundera izan zuela esan behar da.

1562 eta 1572 bitartean, negu latzak zirela eta, Urola erdi eta behean baserritako abelburuak murriztu ziren, %20 gutxi gorabehera: behiak %25, ardiak %20 eta ahuntz azienda %23. Txerriak igo zuen bere azienda %80 iritsi arte. Ordurako jada, ardi eta ahuntz azienda handiagoa zen zerri eta behiarena baino. Orokorrean, baserri guztiek zuten bi idi pare landa lanetarako. Beraiekin batera, hainbat behi zeudelarik esne eta txahal urrixen produktiorako. Hala ere, zailtasun garaiak bizi izan ziren artoa orokortu arte, 1580. urtearen kasu, gaixotasun orokorrez hitz egin daitekeen abelburuei

⁴⁰ARAGON RUANO, A., "El sector agrario Guipuzcoano... op.cit., 100.or.

⁴¹BILBAO BILBAO, L. M. - FERNÁNDEZ DE PINEDO, E., Op.cit., 129.or.

⁴²ARAGON RUANO, A., "Transformaciones agropecuarias en Guipúzcoa... op.cit., 446.or.

dagokionez, Gasteizko kasua da horren erakusle. 1600 urtea ere haragietan antzua bezala hartua izan da, klimaren eragina dela eta⁴³.

Klima hotzak, bi eragin izan zituen abeltzaintzarengan. Batetik, mendietako aziendak murriztu zituen. Bestetik, harrapakin eta basapiztien kopuruak igo zituen geroz eta altuera baxuagoetan ezartzen zirelarik. Horren lekuko da Bergarako Batzar Nagusietan 1585ean emandako baimena, hau da, hartzak nahi adina ehizatze baimena ematen zuenak⁴⁴. Aziendak galtzeko arrisku honek ere, neurri batean bada ere ukuiluratzean lagundu zuela esan daiteke.

Bilbao eta Fernandez de Pinedoren ustez, abeltzaintza murriztu zen artoak ez zuelako konpentsatu ureztatutako bazka lurrak, izan ere, bazka lur naturalak zirenak basoen babesarekin mugatuta zeuden, egur eta ikatzaren iturri baitziren. Bazka beraz, uztondoa zenez, txerrietara eta animalia txikietara soilik zegoen murriztua abeltzaintzaren esplotazioa⁴⁵.

XVI. mende bukaeratik, ordea, ukuiluratutako animalien gorakada ematen da eta asko handitzen da joera hori XVII. mendeko bigarren zatian. Hori ondorioztatu daiteke, Bergarako Magdalena Ospitalak ukuiluen alokairuagatik lortutako sarrerak direla eta. 1627an Bergaran egindako errolda batean, 128 baserri hartzen dira baitan eta ondorengo aurkitu daiteke bertan: 67 baserrik, idi edo behi uztarri bat edo gehiago zituen, 61ek aldiz bat bera ere ez zutelarik. 67 horietatik gehienak uztarri bat zuten, bakar batzuk bi edo hiru zituztelarik. 127 baserrik zuten behi-aziendaren bat, bakar batek soilik zuen ardi-azienda soilik. Beraz, baserri bakoitzak batez besteko 25 ardi, 15 ahuntz eta 3 urdama zituen eta baserrien erdiak uztarri bat⁴⁶.

Bestetik, Mugartegiren datuak ere adierazgarriak dira. Mantxola baserriaren bilakaera hartzen du (Zerain, Gipuzkoa) abelburuen atzerakada eman ez zela frogatzeko, izan ere, nahiz eta beheraldi txiki bat egon mendean zehar orokorrean, hazkundera nagusitzen dela frogatzen dute:

⁴³ARAGON RUANO, A., "Transformaciones agropecuarias en Guipúzcoa... op.cit., 449.or.

⁴⁴*Ibidem*, 450.or.

⁴⁵BILBAO BILBAO, L. M.; FERNANDEZ DE PINEDO, E., Op. cit., 121.or.

⁴⁶ARAGON RUANO, A., "Transformaciones agropecuarias en Guipúzcoa... op. cit., 450. or.

“en 1686 la cabaña pierde un 13 % en la especie vacuna y un 6 % en la ovina siempre que se lleve la comparación hasta el nivel más alto, el que marca el año 1653; pero así y todo, el resultado final conjunto del año 1686 se sitúa aún por encima del punto de partida, el del año 1638”⁴⁷.

Taula 1. Mantxola baserriko aziendaren bilakaera (1638-1686)⁴⁸

Urtea	Abelburu kopurua eta irabaziak (zilar dukat)	Nekazaritza errenta (anegak)	Nekazaritza errenta (zilar dukat)
1638	10 behi-azienda 41 zilar dukat 33 ardi-azienda	6 gari 3 olo	diru: 10 sagasti: 1
1646	12 behi-azienda 49 zilar dukat 33 ardi-azienda	6 gari 3 olo	diru: 10 sagasti: 1
1653	16 behi-azienda 66 zilar dukat 33 ardi-azienda	6 gari 3 olo	diru: 10 sagasti: 1
1665	15 behi-azienda 66 zilar dukat 33 ardi-azienda	9 gari	diru: 18
1686	14 behi-azienda 36 zilar dukat 31 ardi-azienda	9 gari	diru: 18

Iturria: Mugartegui, I., Op.cit., 64. or.

Beraz, ezin daiteke orokorrean abeltzaintza baten murrizketaz hitz egin, toki batzuetan handitu eta bestetan geldiera edo murrizpen bat eman baitzen. Hori bai, oro har, azienda guztiak hedatu egin ziren, batez ere ardi taldeak, baina baita behi-aziendak.

Laburbilduz, esan daiteke, behi-azienden esplotazio estentsibotik, intentsibora pasa zela egoera berrira egokituaz: bazka lekuen murriztea (basoen atzerakada dela eta, eta lur landuaren zabaltzea dela eta -artoari esker gehienbat-); ardi-azienden garrantzia; eta azkenik, behi-aziendaren espezializazioa, “bueyes de pan” haragietarako bideratutakoak. Zebatu egiten ziren, artoaren ereiteak ahalbidetu zituen bestelako ustiakuntzen bidez, arbiarekin nagusiki. XVIII. mendean gauza gehiagorekin zebatu dituzte, azekin, ailorbearekin... Nekazari guztiek ez zuten ahalmen bera ordea, teknologia, produkzioa, finantziarioa eta lur jabegoaren ikuspuntutik, eta beraz gutxi batzuek soilik ziren gai behi-azienda bat mantentzeko. Gehiengoari, ardi-aziendaren

⁴⁷MUGARTEGUI, I., *Propietarios, cercamientos y fábricas en Gipuzkoa (1500-1800), Una historia comparada con Granada*, San Sebastián, Diputación Foral de Gipuzkoa, 2012, 63. or.

⁴⁸Taulan ez dira agertzen denbora tarte horretan izandako idi-pareak (1638, 1653, 1665 eta 1686), eta behor eta moxal bat 1646an.

zaintzan jardutea errentagarriagoa egiten zitzaion, bazka lur gehiago baitzeuden eta egin beharreko inbertsioa txikiagoa zelako⁴⁹.

Artoaren etorrerak XVI. mende erdialdetik abeltzaintza hazkundera lortzeko zegoen zailtasunari irtenbidea eman zion: ongarria handitu zuen batetik, haragi, esne eta artilea handitu ziren autokontsumorako baina baita merkaturatzeko ere; bestetik, nekazari produktibitatea handiagotu zen, tira abereen kopurua handitu zen, eta ongarrien hazkundera lurra errentagarriagoa izatea ekarri zuen. Artoak eragindako errotazio berriak arbiaren ereitea posible egin zuen (arbia aurretik ere ereiten zen, orain artoarekin batera osagarritasuna lortzen du, sasoi ezberdinetakoak baitira, eta horrela lugorria ekidin egiten da), honen bidez ukuiluratutako animaliak elikatuz, ahaztu gabe artoa bera ere horretarako erabiltzen zela gizakiak elikatzeaz gain. Mende amaierako zailtasunek, lugorriak gero eta gutxiago bihurtzea ekarri zuen, behi-aziendak ukuiluratuz eta ardi-aziendak nagusituz bazka librean. Izan ere, artoaren ereitea behi-aziendentzat aproposenak ziren bazka guneak hartu zituen⁵⁰.

Lotura handiago bat sortu zen Errioxa eta kostaldean artean, Araba inguruarekin gutxitzen joan zen heinean, kostakoen auto-hornikuntza eta merkaturako produkzioa handiagotu zelako. Ez zen krisirik eman, beraz, lan zatiketa, egokitzapenak, eta birmoldaketak baizik.

8. XVIII. MENDEA

XVIII. mendea, ilustrazioaren mendea deritzo. 1750 inguruan hasiko da Euskal Herrian korrante hau. Frantzia euren formazioa utzi eta Gipuzkoara bueltatu ziren Peñafloidako kondea, Narroseko Markesa eta Manuel Ignacio de Altuna jaunak (*Triunvirato de Azcoitia* gisa ezagutuak izan zirenak), instituzio publikoetan lanean hasi ziren, euren ezaguera zientifiko literarioak plazaratuz. *Los Aldeanos Criticos* lana idatzi zuten, zientzia modernoaren defentsa egiten zelarik bertan. Hurrengo urteetan bestelako izendapenak izango dituzte, hala nola “caballeritos de Azcoitia” edota “Amigos del

⁴⁹ ARAGON RUANO, A., “El sector agrario guipuzcoano... op.cit., 110.or.

⁵⁰ ARAGON RUANO, A., “Transformaciones agropecuarias en Guipúzcoa... op.cit., 453.or.

Pais” kasu, garaiaren arabera⁵¹. Eragina izango dute euskal nekazaritzan, Gipuzkoako landa eremuan bereziki.

Euskal Herriko ilustratuak, Mirabeau markes frantziarrak *L'Ami des hommes, ou Traité de la populatio* lanean hartutako ideietan oinarritu ziren eta bestelako Frantziako fisiokratek esandakoa izango dute irizpide, Boisfueillebert-en kasu. Helburua, merkatu eta nekazaritzaren arteko erlaziorik onena aurkitzea zuten, hala ere, garbi izanda sektorerik garrantzitsuena nekazaritza eta oro har elikagaiena izan behar zuela⁵².

1730tik aurrera, C zonaldean ez zen hazkunde gehiagorik eman, geldialdi bat eman zen. Muturreko espezializazio batek superproduktzio bat ekarri zuen, honek prezioen beherakada ekarri zuelarik ezinbestean⁵³. Hainbat irtenbide eman zitzaizkion: Ardoa “pattar” bihurtzeko bideetan inbertitu zen eta baita ardoa beraren kalitatea hobetzen saiatu ziren ere, horrela kontserbazio hobetua lortzeko eta urruneko merkatuetara helarazteko, Ameriketara adibidez. Hala ere, beste zereal hainbaten ereitea eman zen 1730tik aurrera, garia bereziki.

B zonaldeak, hazkunde handia izan zuen, bereziki 1720-80 urte bitartean. XVI. mendeko tasak hobetu ziren, eta biztanleria gora egin zuen (ez XVI. mendean adina). Produktzioa per capita handiagotu zen. Lautadan eman zen bereziki hazkunde hau, nahiz eta, komarken artean aldeak egon. Bigarren mailako zerealak gora egin zuten bestalde. Ez dakigu zehazki, zergatik egin zuen gora produktibitateak, agian kanpo merkatuek egindako presioak eraginda izango zen, Errioxako defizita dela eta adibidez⁵⁴.

Pentzuak ere gora egin zuen. Honen zergatia, garraioen gorakadak (XVII. mendetik datorren joera) ekarritako kontsumoa izango litzateke: XVIII. mendeko Errioxako eta Nafar ardoen birbanaketa lanen erdigune izateagatik edota Gaztelaren ehunaren esportazioak Bilbotik egiten ziren erdigunean edo pasabidean egoteagatik baita ere. Jarduera ekonomikoa hain handia izanik, aparteko bideak egin ziren: *Peña de Orduña* (1772) adibidez, dinamizazioa ekarri zuelarik inguruko lurretara. A zonaldeak

⁵¹ ASTIGARRAGA GOENAGA, J., “Un proyecto de reforma de la agricultura guipuzcoana en los albores de la Ilustración en el País Vasco: el “Plan de una sociedad económica o academia de agricultura, ciencias y artes útiles y comercio”(1763)”, *Estructuras agrarias y reformismo ilustrado en la España del siglo XVII*, Ministerio de Agricultura, pesca y alimentación, Madril, 1989, 601.or.

⁵² *Ibidem*, 606.or.

⁵³ BILBAO BILBAO, L. M. - FERNANDEZ DE PINEDO, E., Op.cit., 147.or.

⁵⁴ *Ibidem*, 153.or.

artoaren monopolioan egoteak, gariaren beharra izatea ekarri zuen eta honek ere lagundu zuen hazkunde honetan, eskaria handiagotu baitzuen⁵⁵.

A zonaldeari dagokionez, 1690-1730 bitartean geldialdi fase bat eman zen, hotzaldi txikiaren beste pasarte batengatik (garai hartan baldintza klimatikoek berriro okerrera egin zuten: ekaitzak, kaskabarra, uholdeak, lehortek, bero handiak...)⁵⁶. Horren ostean, zabaltze fase bat hasi zen 1770 urtera arte. 1770-1800 bitartean zabaltzearen topea ematen da. Desberdintasunak eman ziren zonaldeka, hazkunde batzuetan %25koa izan zen, beste batzuetan hirukoiztera iritsi zelarik (Bilbon)⁵⁷. Hazkunde netoa bezala hartua izan da, erritmo desberdinetan eman zena. XVII. mendearen hasieran hazkunde handia izan zuen artoaren sarrera dela eta, baina XVIII. mendea ez zen atzean geratu, eta nolabait artoaren zabaltzean oinarritu zuen bere hazkundea. Artoa, uzta globalaren %59 izatera heldu zen, garia %39an utzi zuelarik, eta beste zerealak ia desagerrarazi zituelarik (beste zereal edota gramineak %1,42)⁵⁸. Azkoitian, adibidez, XVIII. mende amaierarako artoa orokortua zegoen, Gipuzkoako Artzapezpikutza Nagusiaren hamarrenen kobrantzaren arabera, 1777-1781 bitartean 1.366 anega arto eta 1.107 gari anega agertzen baitziren⁵⁹. Artoa, haran sakonetan zen aproposa, hezetasuna eta altitude maila egokiak baitzituzten. Aldapa edo haitz ingurutan ez, ura erori eta beharrezko hezetasuna ez baitzuen lortzen.

Artoaren sarrerak, buruaskitasuna bultzatu zuela argi dago, hala ere, dependienteak izaten jarraitu zuten, krisi garaian batez ere. Errotazio ziklo berria eman zen eta baita prezioen gorakada biztanleria hazkundeak eragindako eskariaren gorakada dela eta. Sagastien atzerakada eman zen zenbait tokietan, Gipuzkoaren mendebaldearen kasu, errotazio ziklo berriak eta artoak berak azken finean, kendutako lurak direla eta batik bat; ez, ordea, Gipuzkoako ekialdean, lehenago aipatutako XVII. mendeko dinamika berean jarraitu baitzuen. Bestetik, sagardoak baino alkohol gehiago duten edariekiko gustu berriek beste ardoen merkatuak gora egitea ekarri zuen. Honela ulertzen da, Nafar ardoek Gipuzkoan eta Errioxakoak Bizkaian hartu zuten indar handia.

⁵⁵BILBAO BILBAO, L. M. - FERNANDEZ DE PINEDO, E., Op.cit., 155.or.

⁵⁶Irungo Udal Artxiboa, A/01/0005/270/V eta Hernaniko Udal Agrtxiboa, Relaciones del Ayuntamiento, Relaciones con las Autoridades Judiciales, Asuntos generales, Libro 1 - Exp. 24.

⁵⁷BILBAO BILBAO, L. M. - FERNANDEZ DE PINEDO, E., Op.cit., 139.or.

⁵⁸*Ibidem*, 140.or.

⁵⁹FERNANDEZ ALBALADEJO, P., *La crisis del Antiguo Régimen en Guipuzcoa, 1766-1833: cambio económico e historia*, Akal, Madril, 1975, 197-198.or.

Hala ere, txakolina biziraute maila batean egin zuen aurrera protekzionismoari esker, izan ere, Nafar eta Errioxako ardoek kompetentzia handiak ziren⁶⁰.

Esan bezala, 70. hamarraldirako hazkundera bere mugetara iristen ari zen. Beraz, ilustratuek egoeraren analisi bat egin zuten: Ongarria eta karea geroz eta urriagoak ziren, lurraren errendimendua gutxituz (ongarria murriztu zen, izan ere, ereiteko lurra nabarmen zabaldu ziren animalien bazka lekuak murriztuz batetik, eta bestetik, karea gehiegi erabili zen ondorioz lurren emankortasuna galtzen joan zen); hazkundera sistema estentsiboa zuen oinarri, eta beraz, ereiteko lurren handitzea ez zuen soilik bazka lurren gutxitzea ekarri, baita basokoa ere, zenak ongarria (orbela edota iratzea) eta pentzua ematen zuen baita janaria, intxaurren kasu⁶¹.

Gipuzkoako lur jabetza bi estruktura zituen: maiorazkoa eta lur jabeak ziren nekazariak. Lehenengoak, noblezia eta klase pribilegiatuak ziren oro har, ez zuten lur landuaren % handiena baina merkaturatu ezin zen lurra izanik bazuen zer esana lur jabetza sisteman, ez zuten janari soberakin handirik produzitzen, baina sortutakoa merkaturatu egiten zen. Lur jabeak ziren nekazarien kopurua, handia zen. Nahiz eta autokontsumorako ziren kultiboak dietan nagusi izan, ez du esan nahi autokontsumoaren maila apartekoa zenik. Oinarrizko produktuen defizit kronikoak ferien eta azoken hazkunde handi baten iturburu izan zen produkzioaren merkataltzearen garapenaren eta nekazariak merkaturatu eskariren papera betetzearen seinale. Horren adibide dira, 1742an abelburuekin lotutako ferien sorrera, Tolosa, Segura eta Bergarakoak⁶². Bestalde biztanleriaren hazkundera, lanaren espezializazio bat dakar produktu baten ekoizpenean, autokontsumorako ekoizten ziren gainerakoak erosi egiten dira, ekoiztutako produktu espezializatu horren salmentaren truke⁶³.

Lan esku familiarraz baliatuz kapital txikikoa zena, euren bizirautea presio fiskal txikiak ahalbidetzen zuen hein handi batean (alkabala eta aduanen politikak direla eta). Batzuetan produkzioa defizitarioa zenean, artisau jarduerekin konpentsatzen zuten. Ilustratuek beraz, klase polarizatu bati egin behar diete aurre: batetik, hobekuntzen alde ez dauden nekazari pribilegiatuak (noble, eta kleroak) daude; eta bestetik, nekazari xumea eta pobrea diru gabekoa hobekuntzetarako. XVII. mendetik nekazarien

⁶⁰BILBAO BILBAO, L. M. - FERNANDEZ DE PINEDO, E., Op.cit., 144.or.

⁶¹ASTIGARRAGA GOENAGA, J., Op.cit., 604.or.

⁶²FERNANDEZ ALBALADEJO, P., Op.cit., 96.or.

⁶³DOMINGUEZ MARTÍN, R., *El campesino adaptativo. Campesinos y Mercado en el norte de España, 1750-1880*, Universidad de Cantabria, Santander, 1995, 151-152.orr.

proletarizazioa eman zen, hau da, lan desberdinak egiten zituzten nekazari jornalariak bihurtu ziren, Donostiako “podavin” edo inustarien kasu. Euren biziraute eta bere familiarena bermatzeko helburuaz, beste lan batzuetan jardun behar izan zuten hala nola, garraioegintzan, zamagintzan, arrantzan edota su-egurren merkatalgoaren lotutako jardueretan. Indar handia hartu zuen dinamika izan zen, gremio antolaketa baten izaera hartu zuelarik Santiagoko kofradiak hauen jardueraren alde eta defentsan jarduten zuelarik⁶⁴. Euren plana burutzeko beraz, protagonistak, klase pribilegiatuak izan behar zirela adostu zuten⁶⁵.

Laburbilduz, nekazaritzaren egoera honakoa zen: nekazari nahiko intentsibo bat, luraren okupazioa altua zuena, artoa eta garia zirelarik nagusi, eta partzela txikietan banatutakoa. Lurrak ez zuten deskantsatzen, eta animalia-aren laguntzaz (idiez nagusiki) bi urtetik behin hiru uzta jasotzen ziren errotazio primitiboaz. Honek lihoaren (ohialak egiteko) edota arbia errotazioan sartzea ahalbidetzen zuen tira abereak elikatzeke aproposak zirenak.

Hori dela eta, ilustratuek beti ere fisiokrazia frantziarra irizpide izanik, instituzioetan lan egiten hasi ziren hainbat neurri proposatuz: Batetik, jaun edo nobleen lur landu gabeak zirenak, nekazari batek lantzea posible egiten zuen legea atera nahi zuten, nekazari-ek lehenengo bi urtetan inolako zergarik ordaindu gabe lurra lantzea bermatuko zuena. Nekazaritzaren eragilea, kapitala hartzen dute eta ez gizonezkoak, hots, kapital hori, gizonezko aberats batek aurrera eramandako inbertsio bat litzateke (lurrak batuz, produkzio modu zaharrak alboratu eta eskala handiko esplotazioak bihurtzeko helburuaz egindakoa). Inbertsio honek jarraitu beharreko bidea argia da: batetik, makineriaren intentsifikazioa eta bestetik, nola ez, produkzioarena. Eskuz egindako laboreen lanketak, makinengatik ordezkatuak izan beharko lirateke: golde, ereile eta gari-jotzailea⁶⁶. Horrela, lurren produktibitatea handiagotzea bermatuta zegoen eta produkzioaren handiagotzea beraz; izan ere, goldeak, laia eta aitzurrak baino sakonagotik mugitzen zuen lurra eta ereileak haziak aurrezten zituen eta hobeto banatzen eta ereiten zuen.

⁶⁴ARAGÓN RUANO, A., “Los podavines: labradores jornaleros en San Sebastián durante los siglos XV al XVIII”, in *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 33, 1999, 22.or.

⁶⁵DOMINGUEZ MARTÍN, R., Op.cit., 610.or.

⁶⁶ASTIGARRAGA GOENAGA, J., Op. cit., 618.or.

Ongarria zen beste kezka gaia. Simaurraren murrizketari nola buelta eman planteatu zuten. Hori dela eta, kanporantz jarri ziren begira ea irtenbiderik aurkitzen zuten. Eskoziakoa zen Pautillok aurrera eramaten ari zen “diagnostique des terres” metodo zaharra hartu zuten irizpide. Metodo honek, lurra aztertzean zetzan ondoren lurren arteko nahasketa baten ondoren, ahalik eta lur organiko hobekien sortuz, eta ekoizpen gai aproposenarekin lotuz. Noski, animalien hondakin organikoak erabilpena ere sustatu zen nahiz eta jada, ongarrien munduan bigarren maila batean egon teknika hau.

Bestalde, bazka lurren murrizteari irtenbidea emateko, bazka lur artifizialak bultzatu ziren. Bazka lur hauek, abereak mantentzea ahalbidetzen zuen, horrela, ongarrria handituko zelarik eta beraz, zereal lurren produktibitatea handituko zuelarik. Metodo honen txertaketa Gipuzkoan ez zen oso zaila izan, izan ere, lugorriari jada uko egiten zenez, soilik, laborantza zikloaren alterazio bat eskatzen zuen: arbiaren ordeztu, alpapa, luzerna, hirusta, e.a. bazka lurretako landareak direnak ereitea proposatu zen (Irlandesen, Inglesean, Frantsesean... kasu) ez baitziren urteroko errotazioak, eta beraz, nekazariak soilik belarra segatzea zuen betebeharrak bakarrik. Bazka lur artifizialen metodo berri honek, posible egin zuen nekazari-abere integralen baserrien sorrera, kalitate hobegoko bazka eta ganadua sortuz gainera⁶⁷.

Azkenik, XVIII. mendean aurrera eraman ziren egitasmoekin eta Gipuzkoako landaren bilakaerarekin amaituz, aipagarria da, animalia espezieen hobekuntzan jardungo duela gure lurraldeak, ingeles nekazarien irispidea jarraiki behi-taldean eta ardi-azienden kumean jarraipen selektibo batetik; kasu honetan, goi mailako artilea lortu zuten⁶⁸. XVIII. mendean zehar pairatutako gaisotasunek arraza kaltetu zuten. 1774ean euskal lurretara behi epidemia baten berriak iritsi ziren. Ondorioz, Gipuzkoako Aldunditik agindua eman zen udal bakoitzaren lurretan behi-aziendak zituen baserri guztien kontrola, hau da, abereen mugikortasuna eta erosketa zein salmenta kontrolatu eta mugatzea hainbat baldintza beteaz:

“Habiéndose experimentado en los Reynos de Francia, y Navarra alguna enfermedad contagiosa en el ganado vacuno que ha transcendido a algunas de mis republicas y a las confinantes de ellos, se hace el encargo de que retengan en sus pastos propios el ganado que

⁶⁷ASTIGARRAGA GOENAGA, J., Op. cit., 620-223.orr.

⁶⁸*Ibidem*, 625.or eta ARAGÓN RUANO, A., *La ganadería guipuzcoana durante el Antiguo Régimen*, Bilbo, EHU, 2009, 92-94.or.

tuviese el mal y manteniéndose con la conveniente separación de sanos... Y para el importante objeto de la salud pública, y posible remedio de los males, que causa la epidemia en las reses vacunas, que no entre en su jurisdicción ni salga de ella ganado vacuno sin la precisa condición de presentarse el testimonio de escribano, firmado por el Alcalde... Para que no se falte a este reglamento, será acertado, que a imitación de algunas Republicas, tenga una continua guardia”.

Azkoitiaren kasuan, hori zela eta herriko zenbait baserriek goardia luzeak bete behar izan zituzten, hurrengo taulan agertzen den bezala⁶⁹.

Taula 2. Zaintza bermatu behar zuten Azkoitiko baserriak eta eremuak (1774)

Baserriak	Zaintza denboraldia
“Caserío Ucín”	“11 de septiembre – 28 del mismo”
“Caserío Aginagas”	“11 de agosto – 3 de septiembre”
“Caserío Artetxe”	“11 de agosto – 3 de septiembre “
“Caserío Pagolandarena”	“11 de agosto – 6 de septiembre”
“Caserío Artola y Pagoandia”	“11 de agosto – 16 de septiembre”
“Caserío Artola”	“3 de septiembre – 16 de octubre”
“Caserío Madariaga y Azcarate”	“11 de agosto – 3 de septiembre”
“Caserío Pagobendikatua y Olarreta”	“11 de agosto – 3 de septiembre”
“Barrio de Elosua”	“11 de agosto – 3 de septiembre”
“Mojon de Alloz”	“3 de septiembre – 4 de octubre”
“Mojon de Aranaga”	“3 de septiembre – 6 del mismo”
“Junto al Caserío de Egurza”	“3 de septiembre – 6 del mismo”
“Junto al Caserío de Irrraga”	“3 de septiembre – 6 del mismo”

9. ONDORIOAK

Laburbilduz, hiru zonaldeek (iparralde hezea, zentral kontinental eta hegoaldeko mediterranearra) bilakaera desberdin bat eraman zuten Aro Berrian zehar: XV. mendean hazkunde garaia izan zen hirurentzat; XVI. mendea jada B eta C zonaldeetan handiagoa zen hazkunde bat eman zen A zonaldean baino; XVII. mendean, berriz, batetik, A zonaldearen hazkunde handia eman zen artoaren sarrerarekin, bestetik, C zonaldea bere aldetik, ardoan gehiago espezializatzen lortu zuen hazkundera, eta azkenik, B zonaldean, geldiera bat izan zuen hainbat merkatu galduko zituelako baina beste batzuk irabazi zituelako. XVIII. mendean, C zonaldean ez zen hazkunde gehiagorik eman, geldialdi bat eman zen, muturreko espezializazio batek

⁶⁹Azkoitiko Udal Artxiboa, 19-01_74.

superproduktzio bat ekarri baitzuen, B eta A zonaldean, berriz, hazkundearekin jarraitu zuten nahiz eta 1770. urte inguruan geldiunea egon dinamika estentsiboak mugetara iritsi zelako. Hala ere, garaiko euskal ilustratuek instituzioetatik irtenbidea aurkitu zuten fisiokrazia frantsesa irizpide izanik.

Nekazaritzari dagokionez, Gipuzkoaren kasuan, gakoa izan zen XVI. mende bukaeran eman ziren zailtasun momentuak (hotzaldi txikia, maizterren exodoa, abeltzaintza errentagarriago baten beharra...), izan ere, ordura arteko dinamika aldatzea ekarri zuen, artoan inbertituz, A zonaldean emango zena nabarmen. Inflexio puntu gisa ulertzen da hau, nolabait zailtasun garai horiek dinamika berri baten beharra eta bidea irekiko dutelarik, eta ez Pinedoren ustez, krisi estruktural baten ondorio moduan, izan ere, ez baitzen halakorik gertatu euskal gizartean⁷⁰.

Artoa ezinbestekoa izan zen XVI. mende geroztik bizi izan zen inflexio puntutik hazkunde joera batek jarraitu ahal ziezaion, izan ere, hainbat hobekuntza ekarri zituen: produktibitatea igo zuen nabarmen haziko produktiboagoa baitzen, errotazio berriak, arbia (baita indabak edo illarrak, lekalezak, e.a.) ereitea ahalbidetu zuen ukuiluratutako abelburuen dietarako, lugorria saihesten zen eta ukuiluratzea ahalbidetu zuen... Aipagarria da, Pinedoren lanaren ostean orokortu den ideia, hau da, sagastiek beherakada nabarmen bat izan zutela artoarengatik ordezkatuak izan zirelako; hala ere, ez da guztiz zilegi, izan ere, kostaldeko herrietan bai iraun zuen indartsu, gehienbat Erret Armadaren eta merkatari ontzien eskaera dela eta, eta beraz, ez zen XVII. mendean ez ondoren ere, atzerakadarik eman Gipuzkoako ipar ekialdean, gaur egun oraindik indarrean dagoen landa gaia izanik. Gipuzkoako nekazaritzan emandako dinamika aldaketa honek, azkenean, XVII. mendetik geroztik, nekazaritza dibertsifikazio garrantzitsu bat ekarri zuen, garia, artoa, arbia, lekadunak, sagastiak, mahastiak,... ikusiko direlarik, eta XVIII. eta XIX. mendean zehar iraungo duelarik estruktura honek.

Abeltzaintzari dagokionez, artoaren sarrerak, abeltzaintzaren beherakada bat ekarri zuela uste izan da, ez zuelako konpentsatu ureztatutako bazka lurren errendimendu bera, baina ikusi denaren legez, esan daiteke abeltzaintza murrizketa

⁷⁰ “Krisi” kontzeptuaren inguruan, XIV. zein XVII. Mendeetan, ikusi Epstein, S.R., “The late medieval crisis as an 'integration' crisis”, *Economic History working papers*, 46/98, 1998 eta De Vries, J., “The Economic crisis of the Seventeenth century after fifty years”, in *Journal of Interdisciplinary History*, Volume 40, Number 2, Autumn 2009, 151-194. or.

orokor batez ezin daitekeela hitz egin, baizik eta tokian tokikoaz. Are gehiago, oro har gainera, behitaldeek eta artaldeek aurrera egin zuten, batez ere bigarren hauek, izan ere, lehenengo ukuiluratzearekin, bigarrenek alturako larre berriak eskuratuko dituzte euren hazkuntzarako. Hori dela eta, lur aldaketa sistemak ere aldatu egin ziren, trashumantziaren alde. Aipagarria da baita ere, kasu batzuetan tokian tokiko artaldeek beharrak aseeginak zirenez beste herritako larreetara jo behar izan zutela sasoika.

Bestalde, behi-azienden eredu estentsibo bat izatetik intentsibo batera pasatu zen ikusi dugun bezala (artoa ahalbidetu zuen zerbait), hau da, ukuiluratzea eman zen. Eredu estentsibotik eredu intentsiboaren aldaketa, bazka lurren murriztea, basoen atzerapena eta landagarri ziren lurren hazkundearen ondorio izan zen. Bestetik, ardi-aziendak hartutako indarrak ere behi-aziendak erlatiboki murriztea (artaldeekin konparatuta, izan ere, oro har bere kopurua igo egin zen) ekarri zuen. Ardi-azienden nagusitzea ordea ez zen erritmo berean eman toki guztietan, Urola eta Deba ibai arroetan behi-aziendak jarraitu baitzuen indarrean, hau da, barnealdeko lurretan, Goierrin, artoa sartzen gehien kostatu zen tokietan alegia eta garia nagusi jarraitu zuten tokietan izan zen ardi-aziendaren nagusitze geldoa. Beraz, artoaren zabaltzeak ahalbidetu zuen behi-azienden ukuiluratzea. XVIII. mendetik aurrera, artoa garia baino gehiago lantzen zen zenbait tokietan, Ipar mendebaldean artoa zen nagusi, hego ekialdean garia oraindik.

10. BIBLOGRAFIA

- ARAGON RUANO, A., “Los podavines: labradores jornaleros en San Sebastián durante los siglos XV al XVIII”, in *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 33, Donostia, 1999, 7-38. or.
- ARAGON RUANO, A., “Ganadería, transtermiancia y trashumancia en los territorios vascos en el tránsito del medievo a la modernidad (siglos XV y XVI)”, in *Cuadernos de Historia Moderna*, 31, 2006, 39-61.or.
- ARAGON RUANO, A., “La evolución de la economía guipuzcoana en tiempos de Urdaneta un período de desarrollo y expansión entre supuestas crisis”, in TRUCHUELO GARCIA, S.: *Andres de Urdaneta, un hombre moderno*, Ordiziako Udala, Ordizia, 2008, 119-145.or.
- ARAGÓN RUANO, A., *La Ganadería Guipuzcoana de Antiguo Régimen*, Bilbo, EHU, 2009.
- ARAGON RUANO, A., “Transformaciones agropecuarias en Guipúzcoa durante los siglos XVI y XVII”, in María José Pérez Álvarez, Laureano M. Rubio Pérez, Alfredo Martín García (eds.); Francisco Fernández Izquierdo (col.), *Campo y campesinos en la España Moderna. Culturas políticas en el mundo hispano*, Fundación Española de Historia Moderna, Madril, 2012, 443-454.or.
- ARAGÓN RUANO, A., “Transformaciones económicas en el sector costero guipuzcoano central durante el siglo XVII”, in *Manuscrits: Revista d’història moderna*, 26, 2012, 191-236.or.
- ARAGON RUANO, A., “El sector agrario Guipuzcoano en la encrucijada de los siglos XVI y XVII”, in *Lurralde*, 38, 2015, 89-116.or.
- ASTIGARRAGA GOENAGA, J., “Un proyecto de reforma de la agricultura guipuzcoana en los albores de la Ilustración en el País Vasco: el “Plan de una sociedad económica o academia de agricultura, ciencias y artes útiles y comercio”(1763)”, *Estructuras agrarias y reformismo ilustrado en la España del siglo XVIII*, Ministerio de agricultura, pesca y alimentación, Madrid, 1989, 601-625.or.
- BILBAO BILBAO, L. M. - FERNANDEZ DE PINEDO, E., “La producción agrícola en el País Vasco peninsular. 1537-1850. Tendencia general y contrastes

- comarcales. Una aproximación”, in *Cuadernos de Sección Historia- Geografía*, 2, 1984, 83-198.or.
- DE VRIES, J., “The Economic crisis of the Seventeenth century after fifty years”, in *Journal of Interdisciplinary History*, Volume 40, Number 2, Autumn 2009, 151-194.or.
 - DIAZ DE DURANA, J.R., “El mundo rural guipuzcoano a final de la Edad Media: progreso agrícola y explotación de la tierra”, in *En la España Medieval*, 21, 1998, 69-96.or.
 - DIEZ DE SALAZAR, L. M., “La industria del hierro en Guipúzcoa (siglos XIII-XVI) Aportación al estudio de la industria urbana”, in *En la España medieval*, 6, 1985, 251-276.or.
 - DOMINGUEZ MARTIN, R., *El campesino adaptativo. Campesinos y Mercado en el norte de España, 1750-1880*, Universidad de Cantabria, Santander, 1995, 151-152.or.
 - EPSTEIN, Stephan R., “The late medieval crisis as an 'integration' crisis”, in *Economic History working papers*, 46/98, 1998.
 - FERNÁNDEZ ALBALADEJO, P., *La crisis del Antiguo Régimen en Guipuzcoa, 1766-1833: cambio económico e historia*, Akal, Madrid, 1975.
 - GARCÍA FERNÁNDEZ, E., “Viñedo y vino en Álava durante la edad media” in Beatriz Aizaga, Dolores Mariño, Carmen Díez, Esther Peña, Jesús Ángel Solórzano, Susana Guijarro, Javier Añíbarro (ed.), *Mundos medievales. Espacios, sociedades y poder*, Universidad de Cantabria, Santander, 2012, 1351-1364.or.
 - LANZA GARCÍA, R., “El crecimiento de la ganadería de Cantabria entre los siglos XVI y XIX: una temprana especialización regional”, in *Historia Agraria: Revista de agricultura e historia rural*, 23, 2001, 79-118.or.
 - MUGARTEGUI, I., *Propietarios, cercamientos y fábricas en Gipuzkoa (1500-1800). Una historia comparada con Granada*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 2012.
 - RODRIGUEZ DE GRACIA, H., “Relaciones comerciales en el siglo XVII: Hierro guipuzcoano, cerrajería de Mora (Toledo) y seda toledana”, in *Boletín de la Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, LVIII, Donostia, 2002, 335-376.or.